


EUSKARAREN EGUNA, 2019

J.M UZELAI HERRI
IKASTETXEKO BERTSO SORTA



5. MAILA

Doinua: Ama begira zazu

*Hemen elkartu gara
euskaraz seguru
hizkuntza babesteko
gogoak ditugu.*

*Beti hitz egitea
da gure helburu
euskararen eguna
ospatuko dugu.*

*Elkartu behar gara
familia eta lagun
eta gure ohitura
aldatu dezagun.*

*Galdu egingo dela
Ezin zaigu ahaztu
Euskaraz bizitzeko
Ta euskaraz jolastu.*

*Gure hizkuntza erabili
Nahi genuke alai
Euskara galtzen bada
Busturia ere bai.*

*Ta hau izan da dena
Orain gu bagoaz
Euskarazko herri bat
Lortzeko gogoaz.*

6.

MAILA

Doinua: Azalorea

*Egunero euskaraz
behar dugu egin
betirako euskara
desagertu ez dadin
eskola guztiekin
gabiltza gu berdín
euskara ikasteko
lagun guztiekin.*

*Euskara oso polita
ez al da benetan
egunero saiatu
behar da berbetan
berdín urtean zehar
edo oportretan
euskaraz egin behar
dugu kaleetan .*

